

## **TEORIA PLATON**

### **1-IDEIEN MUNDUA, IDEIEN MUNDUA ETA MUNDU IKUSGARRIA**

Platonek definizio unibertsalak egin daitekeela uste zuen, baina horretarako bat diren bi mundu ezberdin sailkatzen ditu; ideien mundua eta mundu ikusgarria. Mundu fisiko materiala etengabe ari da mugitzen eta bertan ezinezkoa da ezagutza zientifikoa taxutzea. Zientziak edo ezagutza zorrotzak definitu behar ditu bere ikergaiak, eta definizioak ezin aldatuzko ezaugarriez osatzen direnez gero, aldaezinezko eremuan kokatu behar da benetako ezagutza, hau da mundu idealean.

Bestalde, Platonek dio ideien mundura iristeko heziera jakin bat jaso behar dela eta hori ezberdina izango dela pertsona bakoitzak hiri idealean izango duen rol-aren arabera. Gainera, ideien mundura iristeko ezagutza maila jakin batera iritsi behar da eta zuzentasuna benetan zer den ezagutu nahi du. Behin hura ezagututa filosofo izango da eta hiria gobernatzeko apropos bihurtu.

### **2-HAITZULOAREN MITOA**

Platonen aburuz ezagutza maila batetik bestera igotzea beharrezkoa da jakinduria ezagutzeko eta behetik gorako igarobide honen bultzagarria heziera da. Hau erakusteko Platonek Haitzuloaren mito deritzon alegoria bat erabiltzen du, bere hezieraren gaineko ikuspuntua ulertzeko. Mito honetan haitzuloaren barnealdean kateaturik aurkitzen diren gizon-emakumeak barruko hormari begira daude euren atzean dagoen suteak hondoan islatutako objektuen itzala besterik ikusten dutela. Kanpoaldekoa, benetakoa, ezin ikus daiteke. Iritzia deritzogun ezagutza maila jarraitzen duten horiek, itzalok benetako errealitatez hartzen dituzte, euren mundua eta munduko guztia betidanik ilunetan ikustera ohituta badaude.

Gainera hauetako pertsonaren batek kanpora irtetea lortuko balu, ezindurik legoke kanpoaldeko argitasunari erreparatzeko. Horretarako, begiramenak poliki poliki ohitzen joan beharko luke, lehenengo itzalak begiratu, gero uretan islatutako gizon-emakume eta gauzakien irudiak, eta azkenean, eguzki beraren argi indarra begiztatzeko gauza izango litzateke.

### **3-SOKRATES ETA SOFISTAK**

Ka. V. mendeko Atenasen nagusi zen demokraziak, asanblada eta batzar politikoetan hitz egiteko eskubidea aitortzen zien hiritarrei. Hiritarrek egin behartzat zeukaten halako foruetan eztabaidatzea, entzutea eta erabakiak hartzea. Hitzaren erabilera egokia garrantzitsua zen, komunitatean bizitzeko, norbait izateko, norberaren burua eta eskubideak defendatzeko, berbazko argudio sendoak eraikitzen jakin behar zen.

Sofistak, atzerritik etorriak, hiritarrak ez zirenez, batzarretan hitz egiteko eragotziak zirenak, erlatibistak ziren, hau da, gauzak definitzea oso zailtzat zeukaten. Arrakasta publikora daraman jokabidea dute helmuga, helburu guztiz materialekin. Alor guztietan ere sineste eza erakusten zuten eta amarru edo truku batzuen bidez, ez zuten jakintasun maila handi bat erakusten zuten.

Sokratesek, ordea, kezka etikoan jarduten zuen, ongian. Nork bere burua ezagutu eta ahalik eta gehien jakiteko helburuz. Bere filosofia maila indibidualean garatzen zen. Bestalde Sokrates, idealista utopikoa zen, hau da, sofistak idealista gabeko pertsona pragmatikoak diren bitartean, Sokrates idealista utopikoa da.

#### **4-GARAI HELENISTIKOA**

Garai Helenistikoan, zoriontasuna lortzeko era ezberdinak zeudela uste izan zen eta garai haietako eskola bakoitzak ikuspuntu ezberdin bat zuen. Ondoren 4 eskolen aburua azalduko dut:

Alde batetik, Epikureismoa, Epikurak sortutakoa, hain zuzen ere. Hauen ustez 4 pausu garrantzitsu bete behar ziren. Lehenik, sufrimenduak deuseztatu eta plazerak lortu. Bigarrenik, ataraxia, hots, beldur, min eta kezkarik ez edukitzea; hirugarrenik ongizate fisiko eta espiritualaren jabe izatea eta azkenik politika baztertzea. Bestalde, aipagarria da gizon eta emakumeen aldeko jarrera zutela hauek.

Bigarrenik, Estoizismoa, Zenonek sortutakoa. Hauek zoriontasuna lortzeko heinarekin buruaskitasuna (autonomia) eta autokontrola nahikoak zirelakoan zeuden. Bestalde zoriontasuna patua onartzean oinarritzen zela zioten, etsipenean, modu batean esanda.

Hirugarrenik, Zinismoa, Diogenesek sortutakoa. Hauek arauetik hausturaren inguruan pentsatzen zuten, garbitasuna, neurria, adeitasuna... baztertuz. Gainera ondasun materialei uko egiten zieten eta gorputzeko grinak menderatzen zituzten. Horrela askatasunak dakarren bizimodua bizi liteke.

Azkenik, Eszeptismoa, Pirron sortutakoa alegia. Hauek iritzien balioa erlatiboa zela zioten eta tradizio eta hitzarmenetan oinarritzen ziren. Gauza guztiekiko indiferentzia erakusten zuten eta ez zuten ezer ere ez espero, eta ez zioten ezerreri garrantzia ematen. Modu honetan zoriontasuna lortzen zutela zioten.

#### **5-ARIMAREN TEORIA**

Platonen iritziz doktrina morala azaltzeko, nahitaezkoa dugu arimaren teoriaren, dualismo antropologikoaren, zenbait alderdiri kontu egitea. Izan ere, gizakiari zoriontasuna emango diona arimaren jardueraren oreka eta zuzentasunaren oreka izango da. Hau horrela izandik, gizakiak bi osagai ditu arima eta gorputza. Arima jainkozkoa da gorputza baino lehenago sortua eta hilezkorra. Gorputza aldiz hilkorra da arimaren kartzela edota hilobia.

Arima, bere aldetik, hiru zatitan banatzen da: Zati arrazionala, burua izango litzatekeena, zati oldarkorra, bularra edo bihotza eta zati irritsua sabela.

Zati arrazionala: Gizakiaren goi-mailako gaitasuna da, gogamenaren funtzioak betetzen ditu, pentsamena eta nahimena.

Zati oldarkorra: Gaitzespen, mendeku, ausardia, koldarkeria gisako sentimenduetatik sortzen da eta bihotzak eta zaldi zuriak ordezkatzeko du.

Irritsezko arimak edo zati irritsuak: Otorduen plazera, mina, beste nahierak ditu sentikizun. Sabelean dago kokaturik eta zaldi beltzak ordezkatzeko du.

#### **6-GURDIAREN METAFORA**

Platonen askotan natura azaltzeko aipatu izandako du hegodun gurdiaren alegoria honetan datza. 4 zatitan banatzen da, gurdia, gurdi gidaria eta bi zaldi (zuria eta beltza).

Gurdi gidaria, arimaren zatirik prestuen eta jasoena adierazten duena da ideiak ezagutzen aritzen da eta horretarako beste zati biak bideratu eta zuzen behar ditu. Haren ezaugarri

psikologikoak, gogamena, pentsamena eta nahimena dira, bertutea berriz, zuhurtasuna eta hiri idealean filosofo edo agintari izango litzateke.

Bigarrenik, adorea eta borondatea erakusten dituen zaldi zuri eta ederrak arimaren zati oldarkorra adierazten du eta erraz bidera daiteke. Haren ezaugarri psikologikoak, adorea, kemena, haserrea eta bipiltasuna dira, bertutea sendotasuna eta hiri idealean zaindaria edota soldadua izango litzateke.

Hirugarrenik, arima irritsuaren berri ematen duen zaldi beltz, txar, itsusia, grina eta irrika neurrigabeen menpe bideratzen zailagoa. Ezaugarri psikologikoak, plazera, mina, behe-instintuak eta grinak izango lirateke, bertutea neurritasuna eta hiri idealean eskulaginlea izango litzateke.

Beraz, zaldi biok egoki menderatu behar ditu zamaltzaina, bestela hiru arimen ontasunak orekatzen ez baditu, gizabanakoak ez du zuzentasuna lortzerik izango.

## **7-GOBERNU MOTAK**

Platonen ustez, gizakien bizibide zoriontsu eta onbidetsua estatuaren eginbide nagusietako bat zen. Beraz, estatuaren eta gizabanakoaren egitekoak ez doaz bide desberdinetatik. Izan ere hiritar guztiak maltzurak balira, jokamoldez, estatuaren onbidea ezinezko litzateke. Era berean, estatuaren jarduna maltzurra balitz, hiritarrek ezingo lukete behar bezala jokatu. Hau horrela izanik, platonek 3 antolaketa politiko legitimo sailkatzen zituen: Monarkia, pertsona batek gobernatzen duena, aristokrazia, bere gustukoena, onenak gobernatzen dutena eta errepublika, askoren gobernu izango litzatekeena.

Bestalde hiru antolaketa politiko desbideratu ezartzen ditu, hau da, estatuaren justizia bidea gaiztotu edo bihurritzen dutenak. Tirania, onura tiranoarentzat baita, pertsona bakarrarentzat, oligarkia, aberatsen onura bakarrik baita eta demokrazia pobreen onura bakarrik baita.

## **TEORIA ARISTOTELES**

### **1-HILEMORFISMOA (HILÉ=MATERIA MORFÉ=FORMA)**

Aristotelesek Platonen ideien teoriari egindako kritika da. Bi filosofoek esaten zuten errealitatea ulergarria zela, bai errealitatea azaltzeko bi planteamendu ezberdin zituzten. Platonek ideien teoriarekin frogatzen zuen bitartean, Aristotelesek ez zuen ideien munduaren beharrik ikusten. Aristotelesen ustez izaki fisiko guztiak materia eta formaren arteko konposatuak dira, esaterako materia burdina izango litzateke eta forma giltza. Bestalde Hilemorfismoak gauza asko eta asko kritikatzeko dizkio Platoni.

Alde batetik izatea(ontologikoa), Platonek ez bezala, Aristotelesek formak ez daudela materiatik haragoko beste nonbait (ideien mundua) uste du, baizik eta materia bati era banaezinean lotuta. Beraz ez daude bi mundu(ikusgarria eta ideiena).

Beste alde batetik ezagutza (epistemologikoa). Platonek zentzumenetik datorrena baztertzen du. Aristotelesen esanetan, ordea, ezagutza esperientziatik hasten delakoan dago(eta esperientzia zentzumenetan), nahiz eta ez den esperientzian amaitzen haratago doa.

Azkenik, antropologia (gizakia), Aristotelesek gizakia gorputza (materia) eta arimaz (forman) osatuta dagoela zioen. Gainera, Platonek ez bezala, bata desagertzean bestea desagertzen dela dio eta aldiz, Platonek, arima hilezkorra zelako ustea zuen.

## **2-ESPERIENTZIA ETA KAUSAK**

Zentzumenetatik esperientziara pasatzen da. Ezagutza garrantzitsuak ez baina dena, basikoa, zentzumenetatik hasten da. Esaterako lehenengo aldi sua ikustean, zentzumeneren bidez gogoratzen zara erre egiten duela, beraz ikusmenaren bidez ikusi ondoren esperientzia irabazten duzu arlo horretan hurrengoan gogoratu egingo zara suak erre egiten duela.

Bestalde Aristotelesen iritziz ezagutza mailarik handiena kausa edo zergatia ezagutzea da. Beraz, suak erre egiten du, esperientzia, zergatik erretzen du, kausa. Lau kausa mota nagusi bereizten dira eta laurak beharrezkoa dira ondorio bat sortzeko.

### **1.Kausa materiala:**

Estatua baten materiala, harria.

### **2.Kausa formala:**

Esentzia. Gauza bar izatea eta ez beste bat izatea egiten duena, estatuaren forma

### **3.Kausa motorra:**

Aldaketen eragilea

### **4.Kausa xedezkoa:**

Helburua, egilearen jomuga. Estatuarekin eragin nahi duena, esan nahi duena.